



*Gaua*  
Mikel Azpiroz  
Mamusik, 2013

## Gaueko isiltasunean entzuteko musika lasaia

UKAEZINA da *Gaua* diskoak duen konnotazio intimista. Pianoaren oihartzunak barnealdera garamatza, sentsazio eta pentsamendu artean kiribiltzera. Intentzio eta asmo horiek guztiak konposizioan ageri dira, batez ere: melodia goxak aurkeztu dizkigu, tempoarekin jolastu du, notek duten erresonantziak luzatu ditu eta isiluneek duten presentzia azpimarratu.

Egilearen erraietatik irteerako melodiak gauaren bakardadea eta isiltasuna izan dute lagun eta interpretaziorako egin duen aukera minimalistak intimitate hori bera bilazten dio entzuleari, egunaren bukaeran iluntasunean bildurik entzuteko gonbitea luzatzen baitigu.

Musika lasai honek momentua geldiarazteko deia egiten du, denboraren jarioak inoiz izan duen abiadurarik bortitzena moteltzeko oihu ozena. Erabilera anitzeko gailuei entxufatuta bizi garen garai hauetan, hasperen eginez erlaxazio fasean erori eta geure buruarekin konektatzen lagunduko diguten abestiak sortu dituela esango nuke.

Sei urte zituela hasi zen pianoa jotzen Mikel Azpiroz (Donostia, 1971). Hasieran musika klasikoa izan zuen oinarri, baina umetatik erreferentzia izan ditu jazza eta bluesa. Azken urteotan Elkano Browning Cream taldearekin ibili da buru-belarri, baita Jabier Muguruzarekin ere. Formatu hauetan tarterik ez duten kantu pertsonalagoak zituen sortuak ordea, eta hauek disko batean biltzea erabaki zuen.

Tarragonako El Vendrelleko Pau Casals auditorio ederrean grabatu zuen diskoa, gauetz eta piano eder baten laguntzaz. Urteetan irentsitako estiloak



JOSE AITXA

eta jotzeko erak modu homogeen batean agertu dira hamar kantuetan, modu naturalean azaleratu zaizkio. Orain arteko ekoizpenik pertsonalena dela esan du, beregan ukitu terapeutikoa izan duena.

Abestiak entzuten zoazela aura misterioitsua sumatzen da, bakartia, baketsua. Pianoa da protagonista bakarra. Ez dago beste elementurik, ez testurik ez eta bestelako instrumenturik ere. Abestiak esanguratsuagoak egiteko ezinbesteko baldintza iruditu zitzaion bakarrik agertzea eta hausnarketa honek interpretaziorako askatasuna eman dio. Hau guztiaren adierazgarri nagusienetako da abestiaren garapenean geldotasuna edo bizkortasuna gogoaren baitan moldatzen joan dela.

Lan fina egin du Mikel Azpirozek. Delikatua, leuna eta iradokitzailea. Dudarik gabe, gustuko izango dute musika klasikoa zein garaikidea atsegin dutenek. Musika estilo hau entzuteko zaletasunik ez duen orok ere erraz entzun dezake, pianoaren soinua eta melodia gozoak samur sartzen baitira. ■

**Olatz Korta**

